

Zer da Musikaren Teoria?



ZIUR BADAGOELA ZURETZAKO **BEREZIAGOA** DEN ABESTIENBAT...

ETA SENTIMENDU HORI BESTE INORI **AZALTZEA ZAILA** EGITEN ZAIZULA!

GAINONTZEKO ARTEEK BEZALA **MUSIKAK** ERE BADU **EMOZIO** ETA **SENTIMENDUAK** SORTZEKO GAITAZUNA, **OHIKO KOMUNIKAZIO MODUAK** BAINO **HARATAGO** **POANA**.

ABESTI BAKAR BATEK SORTU DITZAKEEN **ERREAKZIOAK** ANITZAK DIREN ARREN MUSIKA MAITE DUEN EDOZEINEK ESANGO LIZUKE **SENTIMENDUAK** **BENETAKOAK** DIRELA!

ETA **BENETAKOAK** BADIRA, MEREZI DU **AZTERTZEA**.

MUSIKAREN TEORIAKO PARTE GARRANTZITSU BAT OHIKOAK DIREN ESTRUKTURA ETA PROZESUEI **IZENAK JARTZEA** DA, GURE ARTEAN **ERRAZAGO ULERTZEKO!**

sensible, iz. [mus] 1. Nota hau hor dago, ia-ia NNGGG baino zuk nahi duzu apur bat AHH baina ez denean horrela zera pentsatzen duzu UGH jo ezazu bestea

ETA ORDUAN **FAGOTEN KOROA** GOI-GOITIK JAIZTEN DA, **SUTAN DAUDEN MELOIAK** BALIRA

MESEDEZ BRADLEY, **BERANDU** DA

IA BUKATU DUT

TERMINOLOGIA ASMATZEARENA EZ DA BAKARRIK MUSIKAZ **HITZ EGITEKO**, BAITA MUSIKA **IKASTEKO ERE!**

IZENAK ASMATZEA HASTEKO MODU ON BAT DA BAINA MUSIKAREN TEORIA **HORI BAINO GEHIAGO** DA!

KONPOSITOREEK MUSIKA IDAZTEN DUTENEAN (**GARAI KLASIKOKO SINFONIA** BAT DELA ZEIN **POST-SHIBUYA-KEI GLITCH TECHNO JAPONIARRA** DELA) EZ DUTE HELBURU **ARAUAK** JARRAITZEA. GEHIENETAN, EGIA ESAN, **APURTZEN ZAIATZEN** DIRA!

JENDE ASKOK UZTE DU MUSIKAREN TEORIA **MUSIKA SORTZEKO ARAUAK** IKASTEKO BAINO EZ DELA, ETA HORI EZ DA EGIA. TEORIALARIEK EZ DITUZTE **ARAUAK SORTZEN**, BAIZIK ETA **JADA SORTUTAKO** MUSIKAN **PATROIAK** BILATZEN DITUZTE.



KONPOSITOREEK **SORTZEN DUTENA...**



...TEORIALARIEK **ANALISATZEN DUTE!**

HONEK **ZEURE BURUARI ETENGABE** EGIN BEHARKO ZENIOKEN **GALDERARA** GARAMATZA:

ZERGATIK?

ZERGATIK **DISEKZIONATU** MUSIKA? ZERGATIK AURKITU BEHAR DITUGU **KONPOSITOREEI BERAIEI** BAT ERE AXOLA EZ ZIZKIETEN **ARAUAK?**

BADAGO HOR NONBAITEN ABESTIAK ZURI **SENTIARAZI** DIZUNA **SENTIARAZTEKO** ARRAZOIA.

NEGAR EGITEKO GOGOAK, **LASAITU**, EDO TA **ETXEA** GOGORARAZI IZANAREN ARRAZOIA.

AGIAN, **NOTETAN** DAGO. AGIAN, **ISILUNEAN**. EDO AGIAN, **BITARTEAN** NONBAITEN.

BALITEKE **DENBORA** ASKO BEHAR IZATEA, EDO **ERANTZUNAK** BAINO **GALDERA** GEHIAGOREKIN BUKATZEA.

BAINA MUSIKAREN TEORIALARIEK **AURKITUKO DUTE...**

MUSIKAREN TEORIA MUSIKAK ZERGATIK FUNTZIONATZEN DUEN ARGITZEAN DATZA ETA.



ONGI ETORRI TALDERA. HARTU BEHARREZKOA... ETA **GOAZEN!**

Notazioa: Soinu-altuera

NOTAZIO MUSIKALA
MUSIKA BERA IDATZITA ETA ONDO
GORDETA UZTEN DUEN ARTEA DA.



GAUR EGUNGO NOTAZIO MUSIKALA **MENDEETAN**
ZEHAR GERTATU DIREN ALDAKETEN ONDORIOA DA...
ETA EZ DA **ERAGINKORRA**, EZTA **INTUITIBOA** ERE!

SOINU-ALTHERAK SOINU JAKIN
BAT ALTHAGO EDO BAXHAGO
DAGOEN ESATEN DIGU.

ADIBIDEZ, **FLAUTA**
BATEK **SOINU ALTHA** DU,
TUBAK ORDEA **SOINU BAXHA**.

NOTA BAT
SOINU-ALTHERA BATEN
IDATZIZKO IRUDIKAPENA DA.




NOTAZIOAK ZERIKUSIA DU **PIANOKO TEKLATUAREKIN**;
PENTAGRAMAKO **LERROEK** ETA **HUTSUNEK**
TEKLATUKO **TEKLA ZURIAK** IRUDIKATZEN DITUZTE.

PENTAGRAMATIK
IRTEEN DIREN
NOTAK ADIERAZTEKO
LABURRAGOAK
DIREN **LERRO**
GEHIGARRIAK
ERABILTZEN DITUGU.



SOL KLABEA



3. LERROKO
DO KLABEA


KLABEAK PENTAGRAMAKO NOTAK ZEINTZUK
DIREN ZEHATZEN DITU. HEMEN ERAKUSTEN
DIRA **GAUR EGUNGO LAU KLABE** ERABILIENAK;
GUZTIAN AGERTZEN DEN NOTA **ERDIKO DO** DA.




MUSIKAREN NOTAZIORAKO ERABILTZEN
DUGUN SISTEMA **SOINU-ALTHERA**
DENBORAREN ARABERA ADIERAZTEN DUEN
GRAFIKO ESTILIZATU BAT BAINO EZ DA.



NOTAK IDAZTEKO ERABILTZEN
DIREN **BOST LERROEK** **PENTAGRAMA**
IZENA HARTZEN DUTE.



TEKLATU BATEKO **NOTA ZURIEK** ONDORENGO
IZENAK DITUZTE: **DO, RE, MI, FA, SOL, LA, SI.**



4. LERROKO
DO KLABEA



FA KLABEA

ERDIKO DO PIANOKO **ERDIALDETIK**
HURBILEN DAGOEN **DO-A** DA.

TEKLATUKO
TEKLA BELTZAK
ADIERAZTEKO
ALTERAZIOAK
ERABILTZEN DITUGU,
HAIEK NOTAREN
ALTHERA **TONHERDI**
BAT EDO BIGATIK
ALDATZEN DUTE.

TEKLATU BATEAN
ONDOZ-ONDO
DAUDEN TEKLEN
ARTEKO DISTANTZIA
TONHERDI BAT DA,
KOLOREA BELTZA
EDO ZURIA DEN
AXOLA GABE.

SOSTENITU BIKOITZAK NOTAREN
ALTHERA TONHERDI BITAN IGOTZEN DU.


SOSTENITUAK NOTAREN ALTHERA
TONHERDI BATEN IGOTZEN DU.

BEKOADROAK AGERTUTAKO
ALTERAZIOAK EZEZTATZEN DITU.

BEMOLAK NOTAREN ALTHERA
TONHERDI BATEN JAISTEN DU.

BEMOL BIKOITZAK NOTAREN
ALTHERA TONHERDI BITAN JAISTEN DU.

IKUR HAIEK ERAGINA DUTEN NOTAREN
EZKERRALDEAN JARTZEN DIRA ETA
KONPAS BERDINEKO NOTA BERDINETAN
ERE APLIKATZEN DIRA.



SOINU-ALTHERA BERDINA DUTEN NOTAK
(ADIBIDEZ, **FA SOSTENITU** ETA **SOL**
BEMOL) **ENARMONIKOAK** DEITZEN DIRA.

Notazioa: Erritmoa



SOINU-ALTHERA ARDATZ BERTIKALEAN NAHIKO ARGI ADIERAZTEN DEN BITARTEAN **SOINUAREN IRAUPENA** PIXKA BAT EZKUTUAGO DAGO **NOTA-BURU**, **PLIKA** ETA **MAKOETAN**.

KARRATILUA



BIRIBILA



ZURIA



BELTZA



KORTXEA



KORTXAERDIA



FUSA



FUSAERDIA



GARRAPATEA



TAULA HONETAN, **NOTA-IRUDI** BAKOITZAK AURREKOAREN **ERDIA IRAUTEN** DU. BATEK ERE EZ DU IRAUPEN **ESTANDAR BAT**; BALITEKE PIEZA BATEKO **NOTA ZURI** BATEK **BESTE** PIEZA BATEKO **KORTXEA**K **BESTE** IRAUTEA.

PIEZA BATEKO **NOTEN** **IRAUPENA** PIEZAREN **HASIERAN** **ZEHAZTEN** DEN **TEMPO** **MARKAREN** ARABERAKOA DA.

KARRATILIKO ISILLINEA



BIRIBILEKO ISILLINEA



ZURIKO ISILLINEA



BELTZEKO ISILLINEA



KORTXEA KO ISILLINEA



KORTXAERDIKO ISILLINEA



FUSAKO ISILLINEA



FUSAERDIKO ISILLINEA



GARRAPATEAKO ISILLINEA



ISILLINE BAKOITZA IRAUPEN JAKIN BATEKO NOTARI DAGOKIO, TARTE HORRETAN **ISILTASUNA** MANTENDU BEHAR DELARIK.



HEMEN ADIERAZTEN DEN BEZALA, OROKORREAN ISILLINEEK **ALTHERA** JAKIN BAT DUTE **PENTAGRAMAN**.

IRAUPENA LUZATZEKO **PUNTU** BAT KOKATZEN DA **NOTA-BURUAREN** ESKUINALDEAN. TXIKIA DEN ARREN **BOTERE ASKO** DAUKA, JATORRIZKO NOTARI BERE IRAUPENAREN **ERDIA** GEHITZEN BAITIO.

PUNTU BAT BAINO GEHIAGO JARRI DAITEZKE, BAKOITZAK AURREKOAREN **BALIOARI** **ERDIA** GEHITZEN DIOLARIK.



AGH!
ALDE HEMENDIK!
ALDE HEMENDIK!

BALIO-LIGADURAK **NOTA** BI LOTZEN DITUZTEN LERRO KURBATUAK DIRA, HORRELA **IRAUPEN** **GEHIAGODUN** **SOINU** BAT SORTUZ.

NOTA BI BAINO GEHIAGO BATZEKO **BALIO-LIGADURAK** GUZTIEN ARTEAN JARRI BEHAR DIRA, EZ ERABILI LERRO LUZE BAKAR BAT.




BALIO BEREZIKO MULTZOAK ERE BADAUDE. GEHIENETAN, **KAKO** BATEKIN ETA **ZENBAKI** BATEKIN ADIERAZTEN DA LORTU NAHI DEN BANAKETA.

MULTZO HONETAKO GEHIENAK SINPLEAK DIRA, EZKERRALDEKO **HIRUKOTXOA** BEZALA, BAINA EDOZER EGIN DAITEKE! **CHOPINEK** ADIBIDEZ BETI ERAKUTSI ZUEN **BEROTASUN** HANDIA GAUZA HAUEKIN.



ADIBIDEZ, HAUEK EZ DIRA **NOTA BELTZ** ARRUNTAK; BAKOITZAK **NOTA ZURI** BATEN **HERENA** IRAUTEN DU.



ZER DEM...
WOW!
CHOPIN, EZ!
LASAI MOTEL!

Notazioa: Konpasa

ABESTI GEHIENEN EZALGARRI
NAGUSIETAKO BAT **PULTSO**
ERRITMIKO KOHERENTEA DA.

PULTSO HAU BAT DATOR **KONPAS**
BATEKO ZATJETAKO BAKOITZAREKIN,
ALDI BAT DERITZONAREKIN.

KONPAS MOTA **BI** DAUDE:
ZATIKETA BITARREKOAK, KONPAS
BAKUNAK DEITZEN DIRENAK...



... ETA **ZATIKETA HIRUTARREKOAK**,
KONPAS **KONPOSATUAK**
DEITZEN DIRENAK.



MUSIKAN ERRITMOAK **AZENTUDUN** ETA **AZENTUGABEDUN** ELEMENTUZ OSATUTA DAUDE. EGIA ESAN,
ERREPIKATZEN DIREN NOTEN SEKUENTZIA BAT ENTZUTEN BADUZU ZIHURRENIK ZURE BURUAK
BI, HIRU EDO **LAU** NOTAKO TALDEAK EGINGO DITU NAHIZ ETA AZENTURIK EZ EGON!



TALDE HAUEK BAT DATOZ **KONPASEKIN** ETA BERAIEIN
ARTEAN **KONPAS-BARRAK** ERABILIZ MUGATZEN DIRA.

KONPAS-
BARRA

KONPASA

KONPASEN ALDIAK
ANTOLATZEKO
NEURRI-ADIERAZLEA
ERABILTZEN DA.
KONPOSIZIOAREN
HASIERAN JARTZEN
DIREN ZENBAKI
BIREKIN ZEHAZTEN DA.
KONPAS-ADIERAZLE
ERE DEITUZ.

KONPAS BAKUNEN ADIERAZLEAK ERRAZAK DIRA.

3
4

GOIKO ZENBAKIAK
KONPASAREN **ALDI-KOPURUA**
ADIERAZTEN DU.

BEHEKO ZENBAKIAK **ALDI**
BAKOITZEAN SARTZEN
DEN **NOTA-BALIOA**
ZEHAZTEN DU.



NOTEN BALIORAKO KODEA
HONELA DOA: **2** = ZURIA,
4 = BELTZA, **8** = KORTXEA,
16 = KORTXEAERDIA...

KONPAS KONPOSATUEK ORDEA GEZURRA ESATEN DIZUTE, NOLABAIT.

6
8

GOIKO ZENBAKIA **HIRUREKIN** BANATU BEHAR
DA KONPAS HORRETAKO **ALDI-KOPURUA**
JAKITEKO.

BEHEKO ZENBAKIAK **ALDI BAKOITZEAN**
HORRELAKO **HIRUREN NOTA-BALIOA**
SARTZEN DELA ESATEN DIGU. KONPAS
KONPOSATUETAN **ALDI BAKOITZAREN NEURRIA**
PUNTUDUN NOTA BATENA DA!

2



EGIA ESAN, EZ ZEN
IZANGO ERRAZAGO **KONPAS**
KONPOSATUAK HONELA
ADIERAZIKO BAGENITU?

SENTITZEN DUT...
ESKULIBURUAK
DIO **BESTE MODURA**
EGIN BEHAR DUZULA.

NEURRI-ADIERAZLEKO GOIKO
ZENBAKIA AZTERLUZ ONDORIO **BI**
ATERA DAITEZKE: KONPASA **BAKUNA**
EDO **KONPOSATUA** DEN, ETA KONPAS
BAKOITZEAN ZENBAT **ALDI** DAUDEN.

	BAKUNA	KONPOSATUA
2	2	6
3	3	9
4	4	12

MAKOAK EDO **KORTXETEA**
DITUZTEN NOTAK MAKO ADINA
MARRAZ LOTU DAITEZKE.



DENA DELA, **MARRA** HAUEK **ALDI BERDINAREN BARRIAN** DAUDEN
NOTETAN BAKARRIK ERABILI DAITEZKE. OROKORREAN, **ALDI**
DESBERDINETAN DAUDEN NOTAK EZ ZENITUZKE LOTU BEHAR **MARRAZ**,
EZ ETA **LIGATU** ALDI BEREAN DAUDENAK.



aupe
gazteok!

BIXKOR^{da}, MUSIKAREN TEORIAKO TXAKURRA!



G: Bixkor maitea:

Ulertzen dut zergatik lotu behar ditugun makoak marrekin (konpaseko antolaketa erakusteko) baina ba al duzu erritmo konplexuagoentzako aholkurik?

--M. L., Lekeitio (Bizkaia)

E: GUAH!*

***ITZULPENA:** MARRAZ LOTUTAKO NOTEN MULTZOAK NEURRIA ADIERAZTEKO MODU BAT BEZALA ERABILI BEHAR DIRA. ERRITMO SINPLEETAN

NAHIKO ERRAZ LORTU DAITEKE HAU; EGIN BEHARREKO GAUZA BAKARRA MAKODUN NOTAK (KORTXEAK EDOTA LABURRAGOAK DIRENAK) KONPASEKO ALDI BAKOITZAREN IRAUPENA DUTEN MULTZOETAN PILATZEA DA.



ERRITMO KONPLEXUETAN, BESTALDE, ZAILTASUNAK AGERTU DAITEZKE... **SINKOPA** EDO **KONTRADENBORAKO** NOTAK AZALTZEN BADIRA POSIBLE DA NEURRIA MODU EGOKIAN ADIERAZTEKO NOTAK ZATITU BEHAR IZATEA, EDOTA **LIGADURA LERROEKIN** LOTU BEHAR IZATEA. ZORIONEZ, **PAUSUZ-PAUSU** EGIN EZKERO EZ DA OSO ZAILA BIHURTZEN!

HAR DEZAGUN ERRITMO
HAU ADIBIDE BEZALA,
MOMENTUZ MAKOK
LOTU GABE DITUENA.




1. PAUSUA:

AURKITU ERABILI DEN BALIORIK LABURRENA ETA BETE KONPAS GUZTIA MOTA HORRETAKO NOTEKIN, ALDI BAKOITZEKO MULTZO BAT OSATUZ.



2. PAUSUA:

JATORRIZKO ERRITMOA BERDINTZEKO BESTE LIGADURA LERRO GEHITU. ZIHURTATU LOTUTA DAUDEN NOTEN MULTZO BAKOITZA HASIERAKO ERRITMOAREKIN BAT DATORRELA!



BAI, BADAKIT ITXURA
ARRAROA DAUKALA...
BAINA ORAINDIK
EZ DUGU BUKATU!

JATORRIZKO ERRITMOA:

3. PAUSUA:

LIGADUREKIN ETA MAKOEKIN, BIEKIN, LOTUTAKO NOTA GUZTIAK AURKITU ETA ORDEZKATU BALIOKIDEA DEN NOTA BAKAR BATEKIN.

LIGADUREKIN EDO
MAKOEKIN LOTUTAKO
NOTAK AURKITZEN
BADITUZU (BAINA EZ BIAK
ALDI BEREAN), ORDUAN,
UTZI DAUDEN BEZALA!



EZ
IKUTU!



ESKU HORIEK,
GELDI!



AURRERA BAI...
SINPLIFIKATU!

ERA EGOKIAN LOTUTAKO ERRITMOEK LIGADUREN BAT IZATEA OSO ARRUNTA DA, BETI ERE KONPASEKO ALDI BAKOITZA ARGI ETA GARBI ADIERAZIZ... ETA HONEK, ALDI BEREAN, MUSIKARIEI PARTITUREN IRAKURKETA ERRAZTEN DIE!

BETI DA DIBERTIGARRIA BIXKORRI JARRAITZEA!


Eskala Maiorra

ABESTI BATEK **DUEN SOINUA IZATEAREN**
ARRAZOIETAKO BAT KONPOSITOREAK
AUKERATU DUEN **NOTEN MULTZOA** DA.



HAR DEZAGUN **MELODIA** HAU ADIBIDE GISA...


ETA KENDU DITZAGUN **ERREPIKATZEN DIREN NOTAK**, DAUDEN **ZORTZIDUNEAN** DAUDELA.



ORAIN, JAR DITZAGUN **NOTA** HAU EK
ORDENEAN, BATA BESTEAREN
ATZEAN, LEHENENGO **NOTA** BEZALA
MELODIA ENTZUNDA, **GARRANTZITSUENA**
EMOTEN DUENA ERABILIZ.



HORI EGIN EZKERO,
ABESTI HONENTZAKO **"PALETA"**
BATEKIN AMAITUKO DUGU...



MARGOLARIAK **KOLORE**
DESBERDINAK IZATEKO ERABILTZEN
DUEN **OHOLEAN** BEAZALA.

MUSIKAN, "PALETA" HAU **ESKALA**
BEZALA EZAGUTZEN DA. NAHIZ ETA
NORMALEAN **ESKALAK GORANZKO** ORDENEAN
JARRI, EGIA EZAN **EZ DA GARRANTZITSUEGIA**;
INPORTA DUTENAK **ESKALA** OSATZEN
DUTEN **NOTAK** DIRA.

ANTOLAKETA BEREZI
HAU, NON **TONUERDIA**
HIRU-LAU, ETA **ZAZPI-ZORTZI**
(EDO **ZAZPI-BAT**, ZORTZIGARRENA ETA LEHENA BERDINAK
BAITIRA) **NOTEN** BITARTEETAN AGERTZEN DEN, **ESKALA MAIORRA**
BEZALA EZAGUTZEN DA.



(BIDE BATEZ, **ESKALA** HAU **SOL MAIORREKO**
ESKALA DEITZEN DA, **SOL** BATEKIN HASTEN BAITA.)

FORMULA HAU JAKINIK **EDOZEIN NOTAREKIN** HAS ZAITEZKE **ESKALA MAIORRAK** SORTZEN!



FA MAIOR ESKALA



RE BEMOL MAIOR ESKALA




SI MAIOR ESKALA



SOL BEMOL MAIOR ESKALA

HAINBAT **ESKALA MOTA**
DAUDE, BAKOITZAK BERE
TONUERDI ETA **TONU** PATROI
DESBERDINA DUELARIK.

TEKLATU BATEAN **ONDOZ-ONDO**
DAUDEN **TEKLEN** ARTEKO
DISTANTZIA **TONUERDI** BAT DA,
KOLOREA BELTZA EDO ZURIA
DEN AXOLA GABE.



TONU BAT
TONUERDI BI
AINA DA.

BAINA GOGORATU
EZAZU... **BOTERE**
HANDI BATEK
ERANTZUKIZUN
HANDIA DAKAR!

Armadura

ESKALA MAIORRAK IDAZTEN BADITUZU ETA AGERTZEN DOAZEN **ALTERAZIOETAN** ARRETA JARRI, **PATROI** BAT IKUSTEN HASIKO ZARA...

ADIBIDEZ: BEGIRATU BEMOLA DUTEN TONUEI, **BEMOL BAKARREKOTIK** HASITA **ZAZPI** DITUENERARTE. BEMOLAK **ORDENA JAKIN** BATEAN PILATZEN DOAZELA KONTRATUKO ZARA. ETA BERDINA **SOSTENITHEKIN!**

BERAZ, **RE BEMOLA** BAKARRIK DUEN TONOAREN BILA BAZABILTZA EZ DUZU AURKITUKO: TONO BATEK **RE BEMOLA** BADU ESAN NAHI DU **SI BEMOL**, **MI BEMOL** ETA **LA BEMOLA** ERE BADITUELA!

KONPOSIZIO OSO BAT **DO SOSTENITU MAIORREAN** IDAZTEA **TUNEL KARPIARRAREN SINDROME**A SUFRITZEKO MODU ZIHUR BAT DELA ETA, KONPOSITOREEK GUZTI HAU SINPLIFIKATZEKO BIDE BAT AURKITU ZUTEN: **ARMADURA**.

ARMADURA PENTAGRAMA BAKOITZAREN HASIERAN IDAZTEN DEN **ALTERAZIOEN** MULTZOA DA ETA MUSIKARIEI **DAGOKIEN NOTETAN** ALTERAZIOAK ABESTI OSOAN APLIKATU BEHAR DIRELA ADIERAZTEN DIE, KONTRAKORIK ESAN EZIK.



ADIBIDEZ, ARMADURA **HONEK** ADIERAZTEN DU ABESTIKO **FA**, **DO** ETA **SOL** GUZTIAK **SOSTENITUAK** IZAN BEHAR DIRELA, **DAUDEN** ZORTZIDUNEAN **DAUDELA!**

AH, ETA **BESTE GAUZATXO BAT**: ALTERAZIOAK **ORDENA EGOKIAN** JARRI BEHAR DIRA, ERABILIKO DEN **KLABEAREKIN ALDATZEN** DEN **PATROI JAKIN** BAT JARRAITUZ! KONPOSITORE BEZALA ORDENA HONETATIK DESBIDERATZEN BAZARA, **ISEKA** EGINGO DIZUTE!

LAUGARREN LERROKO **DO-REN SOSTENITUOK!** ZEIN DA ZUON **ARAZOA?** **ADOSTASUNA** BEHAR DUGU!

LA ^b		SI MI LA RE	
LA		FA DO SOL	
SI ^b		SI MI	
SI		FA DO SOL RE LA	
DO ^b		SI MI LA RE SOL DO FA	
DO			
DO [#]		FA DO SOL RE LA MI SI	
RE ^b		SI MI LA RE SOL	
RE		FA DO	
MI ^b		SI MI LA	
MI		FA DO SOL RE	
FA		SI	
FA [#]		FA DO SOL RE LA MI	
SOL ^b		SI MI LA RE SOL DO	
SOL		FA	


JA JA... INOIZ!

Bostunen Zirkulua

DIAGRAMA HONEK, **BOSTUNEN ZIRKULUA** BEZALA EZAGUTZEN DENA, TONU DESBERDINAK **ZIRKULUAN ZEHA** BANATURIK DITU, **GOIKALDEAN DO MAIOR** BATEKIN HASIZ ETA PERIMETROAN MUGITZEN GAREN EINEAN **ALTERAZIOAK GEHITUZ**, BANAN-BANAN.

TEORIKOEK **KOMENIGARRI** IKUSTEN DUTE **TONU** POSIBLE GUZTIAK **DIAGRAMA** BATEAN ADIERAZTEA, BERAIEK ARTEKO ERLAZIOAK NABARMENDUZ.

BHELTATUKO GARA **DIAGRAMA** HONETARA KONPOSITOREEK **TONUAK** NOLA ERABILTZEN DITUZTEN IKASTEN GOAZELA.



Bitarte Diatonikoak

BITARTE DESBERDINAK IDENTIFIKATZEKO MODURIK ARRUNTENA NOTA BIEN ARTEKO TARTEA ZENBATZEA DA.

BITARTEA BI NOTAREN ARTEKO ALTHERA TARTEA DA.

BITARTE TXIKIAGOAK

BITARTE HANDIAGOAK

BENETAN, ZENBATZEN DITUGUNAK **ESKALAKO GRADUAK** DIRA BAINA MODURIK ERRAZENA **PENTAGRAMAKO LERRO ETA HUTSUNEAK** ZENBATZEA DA.

ZENBATZERAKOAN, HASI **BEHEKO NOTA** LEHENENGO BEZALA HARTUZ ETA ZENBATHU **GOIKO NOTARA** HELDU ARTE.

LERROAK ETA **HUTSUNEAK** ZENBATZERAKOAN **ALTERAZIOAK** ALDE BATERA **HUTS** DITZAKEGU.

BITARTE HAU ERE **ZAZPIDUNA** DA... **LAISTER** IKUSIKO DUGU NON DAGOEN DESBERDINTASUNA!

BITARTE HAU **ZAZPIDUNA** DA!

UNISONOA

BIDUNA

HIRUDUNA

LAUDUNA

BOSTUNA

SEIDUNA

ZAZPIDUNA

ZORTZIDUNA

LERRO EDO HUTSUNE BERDINEAN DAUDEN NOTA BIK **UNISONOA** OSATZEN DUTE.

"SOINU BAKARRA" LATINEZ!

ETA HAU **ZORTZIKO TARTERAKO...** **EUSKARAZKO** HITZA!

IZEN BEREKO BAINA ALTHERA DESBERDINEKO NOTA BIREN ARTEKO TARTEARI **ZORTZIDUNA** DERITZO.

BATZUETAN, **BITARTE HARMONIKO** ETA **BITARTE MELODIKOAREN** ARTEKO DESBERDINTASUNA EGITEN DA.

NOTA BIAK **TRUKATZEAN** (ADIBIDEZ, BEHEKO NOTA **ZORTZIDUN** BAT **IGO** EZKERO, **ALTHAGO** EGINEZ) BITARTEA **IRAILI** DUZULA ESATEN DA.

BITARTE HARMONIKOA

BITARTE MELODIKOAK

BITARTE HARMONIKOAK NOTA BIAK **BATERA** JO DIRELA ESAN NAHI DU; BITARTE MELODIKOAN, ALDIZ, **BATA BESTEAREN ATZEAN**.

ERABILGARRIA DA **BIDUNAK** IRAULTZEAN **ZAZPIDUNAK** BIHURTZEN DIRELA GOGORATZEA, **HIRUDUNAK** **SEIDUNAK**, ETA ABAR.

BIKOTE BAKOITZAREN BATUKETAK **BEDERATZI** EMATEN DUELA ETA HARTZEN DU **"BEDERATZIEN ARAUA"** IZENA.

BEDERATZIEN


2DUNA	↔	7DUNA
3DUNA	↔	6DUNA
4DUNA	↔	5DUNA
5DUNA	↔	4DUNA
6DUNA	↔	3DUNA
7DUNA	↔	2DUNA

ARAUUA

Bitarte Justuak

PAUSU HAU **ZAILTXOAGOA** IZAN DAITEKE ULERTZEKO, NEURRI HANDI BATEAN **TAMAINAREN** ARABERAKOA BAITA. HAS GAITEZEN **UNISONO**, **LAUDUN**, **BOSTUN** ETA **ZORTZIDUNEKIN**.


TEORIKO BATZUEK **KALITATE** HITZA ERABILTZEN DUTE HONETARAKO... ONDO DAGO BAITA.



UNISONO ETA ZORTZIDUNAK IZANGO DIRA ZIHURRENIK ERRAZENAK: NOTA BIAK **BERDINAK** BADIRA (ADIBIDEZ, **SI BEMOL** ETA **SI BEMOL**) ORDUAN TARTEA **JUSTUA** DA: **UNISONO JUSTUA** EDO **ZORTZIDUN JUSTUA**.

LAUDUN ETA BOSTUNEK AZALPEN GEHIAGO BEHARKO DITUZTE.

BEGIRA IEZAEZU PIANOKO **TEKLA ZURIAK** (HAU DA, **ALTERAZIORIK GABE**) ERABILIZ LORTU DAITEZKEEN LAUDUN ETA BOSTUN GUZTIEI:



DENAK DIRA **JUSTUAK FA** ETA **SI**, BIAK, AGERTZEN DIRENEKOAK IZAN EZIK!

ITXOIN... ZERGATIK DIRA DESBERDINAK **SI** ETA **FA**-REN ARTEKO BITARTEAK?

BA, BITARTEA OSATZEN DUTEN **TONUERDIAK** ZENBATUKO BAGENITU, KONTURATUKO GINATEKE GAINONTZEKO GUZTIAK **TAMAINA BERDINEKOAK** DIRELA, BAINA SI ETA FA DITUZTEN BITARTEAK EZ: **FA**-TIK **SI**-RA TONUERDI BAT **GEHIAGO** DAGO, ETA **SI**-TIK **FA**-RA TONUERDI BAT **GUTXIAGO**.

HORREK **GALDERA** BAT EGITERA GARAMATZA: BITARTEA EZ BADA **JUSTUA**, ZER DA ORDUAN?

JUSTUAK BAINO TONUERDI BAT **GEHIAGO** DUEN BITARTEA **GEHITUA** DA.



NAHI IZAN EZKERO **HURRUNAGO** JOAN ZAITEZKE ETA BITARTE **BI** **ALDIZ** **GEHITUAK** ETA **BI** **ALDIZ** **GUTXITUAK** ERABILI, BAINA... ZIHUR HORI NAHI DUZULA?

C
GEHITUA

J
JUSTUA

g
GUTXITUA




EZ DA EXISTITZEN **UNISONO** **GUTXITURIK**...

GAUZA BI BERAIEEN ARTEAN **MINUS BI** **METRORA** EGON EZIN DIREN BEZALA!

JUSTUAK BAINO TONUERDI BAT **GUTXIAGO** DUEN BITARTEA **GUTXITUA** DA.

Bitarte Ez Justuak

JADANIK HITZ EGIN DUGU **UNISONO**, **LAUDUN**, **BOSTUN** ETA **ZORTZIDUNEN** INGURUAN, BAINA ZER GERTATZEN DA GAINONTZEKOekin? EZ AL DAGO JUSTURIK BERAIEI ARTEAN?




BA... EZ, EGIA ESAN. BAINA HORREK EZ DU ESAN NAHI JUSTUAK BAINO GARRANTZI **GUTXIAGOKOAK** DIRENIK. **BIDUN**, **HIRUDUN**, **SEIDUN** ETA **ZAZPIDUNEK** **BESTE MODU BATERA** FUNTZIONATZEN DUTE!



ALDE BATETIK, BITARTE HALETARAKO **MAIOR** EDO **MINOR** HITZAK ERABILTZEN DIRA; INOIZ EZ **JUSTUA**. BITARTE MINORREK, MAIORREK BAINO TONUERDI BAT GUTXIAGO DUTE. ETA BITARTE JUSTUETAN BEZALA, **GEHITUAK** EDO **GUTXITUAK** ERE IZAN DAITEZKE; GEHITUEK MAIORREK BAINO TONUERDI BAT GEHIAGO IZANIK ETA GUTXITUEK MIRROREK BAINO TONUERDI BAT GUTXIAGO.

NOLA DESBERDINDU DITZAKEGU BITARTE **MAIOR** ETA **MINORRAK**? LAN HORRETAN LAGUNTZEKO **ESKALA MAIORRA** ERABILI DEZAKEGU. KONTUAN IZAN BEHARREKO GAUZA BAKARRA ONDORENGOA DA: **TONIKATIK** HASITA GORANTZ NEURTUTAKO TARTE GUZTIAK **MAIORRAK** DIRA.



HALABER, TONIKATIK HASITA **BEHERANTZ** NEURTUTAKO GUZTIAK **MINORRAK** DIRA.



BEHIN HAU JAKINDA, **BIDUN**, **HIRUDUN**, **SEIDUN** EDO **ZAZPIDUN** BATEKIN AURKITZEN ZARENEAN, ZEHAZKI NOLAKOA DEN ESAN DEZAKEZU GOIKO ETA/EDO BEHEKOAREN NOTAREN TONUA GOGORATUZ.

RE, GOIKO NOTA, **FA** MAIORREN (BEHEKO NOTAREN) ESKALAN DAGOENEZ BADAKIGU BITARTEA **SEIDUN MAIORRA** DELA.



ETA HEMEN, **SI**, BEHEKO NOTA, **LA** MAIORREN (GOIKO NOTAREN) ESKALAN DAGOENEZ BADAKIGU BITARTEA **ZAZPIDUN MINORRA** DELA.

GORENGO NOTA BEHEKOAREN ESKALA MAIORREAN AURKITZEN BADA, BITARTEA **MAIORRA** DA. **BEHERENGO NOTA GOIKOAREN** ESKALA MAIORREAN AURKITZEN BADA, ORDUAN, BITARTEA **MINORRA** DA.

AZTERTU NAHI DEN BITARTEKO NOTEK **ALTERAZIOAK** BADITUZTE TONUAK ERABILTZEAREN METODOA **KONPLIKATU** EGITEN DA... HOBE DA **MOMENTUTXO** BATEZ ALTERAZIOAK KONTUAN EZ HARTZEA, BITARTEA ZEHATZEA, ETA **ALTERAZIOAK** **BANAN-BANAN SARTUZ**, BITARTEA NOLA ALDATZEN DEN AZTERTZEA!



UFF! ZER DA **HORI?** KEN DITZAGUN ALTERAZIOAK...



6M

MI SOL-EN TONUAN DAGOELA DAKIGUNEZ **SEIDUN MAIORRA** DA.



6m

BEMOLA BERRIZ JARRITA BITARTEA **TXIKIAGOTXEN** DUGU. ORAIN **SEIDUN MINORRA** DA...



6g

ETA **SOSTENITUA** JARTZEAK ORAINDIK ERE **TXIKIAGOA** EGITEN DU TARTEA... **SEIDUN GUTXITUA!**

aupa gazteok!

BIXKOR da, **MUSIKAREN TEORIAKO TXAKURRA!**

G: Bixkor maitea:
Badirudi justuak diren bitarteen artean eta ez direnen artean planteamendu desberdinak erabili behar ditugula. Laburtuko zenizkidake modu bakar batean?

--B. L., Orio (Gipuzkoa)

E: GUAAH!*

***ITZULPENA:** ONDORENGO TAILAK **MOTA GUZTIAK** **BITARTEAK** NOLA IDATZI ESATEN DIGU. HELBURUA **EMANDAKO NOTA** BATETIK ABIATUTA **BITARTEA IDENTIFIKATZEA** BADA, ANTZERAKO PLANTEAMENDUA ERABILI DAITEKE: LEHENIK ETA BEHIN, IDATZI **DISTANTZI** EGOKIRA **EMANDAKO NOTAREN** GAINETIK EDO AZPITIK; ONDOREN, JARRAITU TAILA HONETAKO **2-4 PAUSUAK** **BITARTEA IDENTIFIKATZEKO**, ETA ALDAKETARIK BEHAR DUEN JAKITEKO. AZKENIK, SARTU **ALTERAZIOAK** **NOTA BERRIAN ZURE** HELBURUA LORTZEKO.

1. PAUSUA:ZENBATH TARTEAREN **TAMAINA**
LERROAK ETA **HUTSUNEAK** ERABILIZ.

BEHERENGO NOTA
LEHENA BEZALA HARTU,
ETA JARRAITU **GOIKORA**
HELDU ARTE.

2. PAUSUA:**ALTERAZIO** **GUZTIAK** EZTALI.**3. PAUSUA:**AURREAN DUZUN (ALTERAZIORIK GABEKOA!)
BITARTEAREN **MOTA** ZEHAZTU:

UNISONOA EDO
ZORTZIDUNA BADA:

LAUDUNA EDO
BOSTUNA BADA:

BIDUNA, HIRUDUNA,
SEIDUNA EDO
ZAZPIDUNA BADA:

BITARTEA
UNISONO JUSTUA EDO
ZORTZIDUN JUSTUA DA.

BITARTEAN **FA** ETA **SI**
AZALTZEN BADIRA, ORDUAN,
LAUDUN GEHITU
EDO **BOSTUN GUTXITU**
BATEN AURREAN GAUDE.

GOIKO NOTA
BEHEKOAREN ESKALA
MAIORREAN BADAGO,
BITARTEA **MAIORRA** DA.

BEHEKO NOTA
GOIKOAREN ESKALA
MAIORREAN BADAGO,
BITARTEA **MINORRA** DA.

BENETAN.
HORI DA AIN
JUSTU ERANTZUNA.

BESTELA, BITARTEA
JUSTUA DA.

4. PAUSUA:JARRI BERRIZ **HASIERAKO ALTERAZIOAK** BERAIEK LEKUAN, **BANAN-BANAN**,
ETA EGIN AHALA ALDATU BITARTEAREN MOTA.

6M

6m

6g

GOGORATU: ALTERAZIOEK **EZ** DUTE
ERAGINIK BITARTEAREN **TAMAINAN...**
EGIN DEZAKETEN GAUZA
BAKARRA **MOTA** ALDATZEA DA!

PROZEDURA HONEK **KONPLIKATUA**
DIRUDIEN ARREN GERO ETA **ERRAZAGOA** ETA
AZKARRAGOA BIHURTZEN DA **PRAKTIKAREKIN...**
ETA **BETI** LORTZEN DA **EMAITZA ZUZENA!**


BETI DA DIBERTIGARRIA BIXKORRI JARRAITZEA!

Dinamika eta Artikulazioak

MUSIKA NOTEN ALTUERA
ETA ERRITMOA ALDATZEA
BAINO GEHIAGO DA!



ZEIN **SOINU-INTENSITATERE**KIN JO BEHAR DEN ESATEKO **DINAMIKAK** ERABILTZEN DIRA.



PIXKANAKA EGIN BEHARREKO ALDAKETA
DINAMIKOAK **PINTZA ITXURAKO IKURREKIN** ADIERAZTEN
DIRA. ITALIERAZ, **CRESCENDO** (INTENSITATEA HANDITU)
EDO **DIMINUENDO** (INTENSITATEA GUTXITU).



ÑABARDURA DINAMIKOAK **PENTAGRAMAREN AZPIKALDEAN** JARTZEN DIRA
INSTRUMENTUENTZAT ETA **GOIKALDEAN** AHOTSENTZAT, **LETRAREKIN** EZ NAHASTEKO!



ARTIKULAZIOAK
NOTA BAKOITZARI
NOLA EGIN ESATEN
DIGUTEN IKURRAK DIRA.

BESTE IKUR BATZUK
HAINBAT NOTENTZAKO DIRA...

ACCENT	>	NABARMENDU
STACCATO	•	LABURTUZ, NOTEN ARTEAN BEREIZI
TENUTO	—	IRAUPEN OSOA EMAN
MARCATO	^	ASKO AZENTUATUZ
STACCATISSIMO	▼	OSO LABUR ETA INDARRAREKIN
SFORZANDO	sfz	NABARMENDUZ ETA IRAUPEN OSOA EMANEZ
FERMATA	◡	IRAUPENA LUZATU DAITEKE
TREMOLO	≡	NOTA BI AZKAR ERREPIKATZEA
SULL'ARCO	∨	(ARKU-INSTRUMENTUENTZAT) ARKUAREN PUNTAN HASI
GIÙ ARCO	⏏	(ARKU-INSTRUMENTUENTZAT) ARKUAREN BEHEKALDEAN HASI
TRILLOA	tr	ONDOZ-ONDOKO NOTA BI AZKAR ERREPIKATZEA
ARPEGGIO	}	AKORDEKO NOTAK ELKARREN SEGIDAN JOTZEKO

8^{va}

GOIKO/BEHEKO ZORTZIDUNEAN: PASARTE BAT
ZORTZIDUN BAT GORAGO/BEHERAGO JO (ZORTZIDUN BI
15^{ma}, AND THREE OCTAVES IS 22^{ma}!)

PEDALA: PIANOAN **ERRESONANTZIA-PEDALA**
SAKATU BEHAR DELA ESATEKO. SAKATZEKO BESTE
IKUR BAT IZAN DAITEKE ETA * IGOTZEKO.

ETA GERO
GAUZA HAU
DAUKAGU...



FORMA SINPLEDUN
IKURRA BAINA HAINBAT
ESANAHI DESBERDINEKIN!

PARTITURA GEHIENETAN
LIGADURA BAT DA,
BILTZEN DITUEN NOTAK
LEGATO EDO **LOTUTA**
JO BEHAR DIRA!

BIOLINA BEZALAKO
ARKU-INSTRUMENTUENTZAT
ARKUAREN INGURUKO IKUR
BAT DA, NOTAK **ARKU-KOLPE**
BAKAR BATEZ JO BEHAR
DIRELA ADIERAZTEN DU.

AHOTSENTZAT
MELISMAK
ADIERAZTEN DITU:
SILABA
BAKARRAREKIN
ABESTEKO!

BESTE PARTITURA BATZUETAN,
NOTA MULTZO HANDIAK
BATZEN DITUENEAN, **ESALDIAK**
MARKATZEKO ERABILTZEN DA,
INTERPRETATZAILEARI ESTRUKTURA
IKUSTEN LAGUNTZEKO!

Triadak

ALDI BEREAN JOTAKO NOTEN **EDOZEIN** KONBINAZIO **AKORDE** BAT DELA ESAN DEZAKEGUN ARREN, **MUSIKAREN TEORIAN** AKORDEA HIRU NOTAZ EDO GEHIAGOZ OSATUTAKOARI ESATEN ZAIO.

SEIDUNEN HARMONIA? ZAZPIDUNEN HARMONIA? BOSTLINEKIN GERTATZEN DEN MODUAN, HIRUDUN ETA BIDUNEN HARMONIA BEZALA IKUS DAITEZKE. HURRENEZ HURREN.

BIDUNEN HARMONIA



BIDUNEZ OSATZEN DIREN AKORDEAK **CLUSTERRAK** ERE DEITZEN DIRA ETA EZ DIRA OSO **HARMONIKOAK**, BAINA BALIABIDE **TINBRIKO** BEZALA ERABILTZEN DIRA.

HIRUDUNEN HARMONIA



HIRUDUNEZ OSATUTAKO AKORDEAK (**HIRUDUN MAIOR** ETA **MINORREZ**, HAIN ZUZEN) **GARAI KLASIKOKO** OINARRI GARRANTZITSUENETARIKO BAT DIRA.

LAUDUNEN HARMONIA




LAUDUN JUSTUZ OSATUTAKO AKORDEEK, BESTALDE, SOINU DESBERDINA DUTE, OSO ERABILIA **1900TIK HASI** ETA AURRERA.

BOSTUNEN HARMONIA



BOSTUN JUSTUZ OSATUTAKO AKORDEAK **LAUDUNENA** IZANGO BALITZ BEZALA IKUS DAITEZKE, EZ DA SORTU BEHAR TALDE BEREZI BAT HAUTENTZAT.




ESAN DEZAKEGU AKORDE BAT **HIRUDUNEZ** OSATUTA DAGOELA **HIRUDUN GUTXITU** EDO **GEHITUAK** ERABILTZEN BADITU?

BA, **HIRUDUN GUTXITUEN** SOINUA ETA **BIDUN MAIORRENA** BERDINAK DIRENEZ, ETA **HIRUDUN GEHITUENA** ETA **LAUDUN JUSTUENA** ERE BAI...

EZ.

HAS GAITEZEN **HIRUDUNEN** HARMONIA LANTZEA POSIBLE EGITEN DUEN AKORDE TXIKIENAREKIN: **TRIADAREKIN.**

AKORDEA BERE **FORMARIK SINPLEENEAN** DAGOENEAN, BEHEREN DAGOEN NOTA **OINARRI-NOTA** DA. GAINONTZEKO NOTEN IZENAK OINARRITIK HASITA DAGOEN **BITARTEEN** BERDINAK DIRA.



HIRUDUNEZ OSATUTAKO AKORDEA **ZORTZIDUN BATEN** BARRURA MUGATZEN BADUGU, AKORDEAREN **FORMA ARRUNTENA** LORTZEN DA.

TRIADA, IZATEZ, **HIRU NOTAZ OSATUTAKO EDOZEIN AKORDE** DA BAINA PRAKTIKAN **HIRUDUNEZ** OSATUTAKO HIRU NOTEN AKORDEARI DEITZEN DIOGU.

BIDE BATEZ, **LAU NOTADUN AKORDEEN** IZENA **KOATRIADA** DA, BAINA ASKOTAN **AKORDE ZAZPIDUN** BEZALA ERE DEITZEN ZAIO, **ZAZPIDUN** BAT GEHITZEN BAITUTE.

HEMEN DITUZU **MAIOR** ETA **MINORRAK** ERABILIZ TRIADAK SORTZEKO **LAU** MODU:

TRIADA GUTXITUA

HIRUDUN MINOR BI BATA BESTEAREN GAINEAN



do°

TRIADA MINORRA


HIRUDUN MAIORRA GAINEAN **HIRUDUN MINORRA** BEHEAN



do

TRIADA MAIORRA


HIRUDUN MINORRA GAINEAN **HIRUDUN MAIORRA** BEHEAN



Do

TRIADA GEHITUA

HIRUDUN MAIOR BI BATA BESTEAREN GAINEAN



Do+

TRIADEN IZENA **OINARRI-NOTARENA** DA ("DO MINOR TRIADA BAT"). GORAGO ERABILITAKO LABURDUREN ERABILERA, AKORDEA ZEHAZTEKO **MAIUSKULAK**, **MINUSKULAK** ETA **IKURRAK** ERABILTZEN DITHENAK, **MAKRO ANALISI** BEZALA EZAGUTZEN DA.

Triaden Inbertsioak

JAIN-ANDREOK,
FRANZ JOSEPH HAYDN!

ORAINGO HONETAN 1767
URTEKO SONATA SOL
MAIORREN EKARRI DIGU.



OOH! IKUS
DITZAGUN!

ESKERRIK ASKO ARRERAGATIK.
KONPOSIZIO HONETAN HAINBAT
TRIADA ERABILTZEN DITUT.

HEMEN DAGO BAT: DO, MI ETA
SOL NOTAK DITU. DO MAIORREN
TRIADA DA! OSO ONDO.

ESKERRIK ASKO. IKUSTEN DUTZUE
NOLA DAUDEN NOTAK **SAKABANATUTA**,
ETA EZ HIRUDUNETAN PILATUTA? HALA
ERE, TRIADA IZATEN JARRAITZEN DU.

BESTE HONEK SOL, SI ETA RE
DITUENEZ... SOL MAIORREN TRIADA DA!
BAINA SOINU DESBERDINA DU
NOLABAIT.

ARRAZOIA **BAXU** BEZALA ERABILTZEN
DEN NOTAN DAGO, AKORDEKO **HIRUDUNA**
HAIN ZUZEN... HORI GERTATZEN DENEAN
AKORDEA **LEHEN INBERTSIOAN** DAGO.

LEHEN INBERTSIOA? ETA NOLA
DEITZEN DA BA **OINARRI-NOTA**
DAGOENEAN BAXUAN, IKUSI DUGUN
LEHENENGO AKORDEAN BEZALA?

HORRI **OINARRIZKO**
ANTOLAERA DERITZO.

ETA BESTE HAU RE, FA ETA
LA-REKIN RE MINORREN TRIADA
DA BAINA... **BIGARREN**
INBERTSIOAN!

HORI DA! BAXUAN DAGOEN
NOTA AKORDEKO **BOSTUNA**
BAITA.

BERAZ, AKORDE BAT **OINARRIZKO**
ANTOLAERAN, **LEHEN INBERTSIOAN** EDO
BIGARREN INBERTSIOAN DAGOEN ESATEN DUGUN
GAUZA BAKARRA **BAXUAN DAGOEN**
NOTA DA?

HAIN ZUZEN!
ETA BAKOITZAK
BERE **IZAERA**
BEREZIA DU.

ZAILA DA SINISTEA NOLA
ALDATU DAITEKEEN HAINBESTE
AKORDEAREN SOINUA **BAXUKO**
NOTAREN ARABERA.

BAI, EZTA?
HARRIGARRIA
BENETAN.



Baxu Zifratua



1. irudia. Basso Continuo-a


BARROKO GARAIO KONPOSIZIO ASKOTAN **BASSO CONTINUO** (BAXU JARRAITU) IZENENKO PARTE BAT ZEGOEN. ZATI HONEK BAXUAK JARRAITU BEHARREKO MELODIA ZUEN, ZENBAKI ETA ALTERAZIO BATZUEKIN.

EZ, EZ, EZ... EZ ZEN EXISTITZEN **BASSO CONTINUO** IZENENKO INSTRUMENTURIK! ZATI HAU INSTRUMENTU BIREKIN JOTZEN ZEN: FA-REN KLABEAN JOTZEN ZUEN **TXELOA** EDO **FAGOTA** BEZALAKO INSTRUMENTU BATEKIN ETA **KLABEA** BEZALAKO TEKLA DUN INSTRUMENTU BAT.

ENTZUNALDIETAN, FA-REN KLABEKO INSTRUMENTUAK **IDATZITA ZEUDEN** NOTAK BAKARRIK JOTZEN ZITHEN, BAINA KLABE JOTZAILEAK **EMANDAKO NOTA ETA IKURRETATIK** ABIATUTA **INPROBISATU** OHI ZUEN!




HONELA JO ZITEKEEN!




LEHENIK ETA BEHIN, GARRANTZITSUA DA JAKITEA FA-REN KLABEAN IDATZITAKO **NOTA** BETI DELA **AKORDEKO NOTA BAXUENA**. BAINA GOGORATU: **BAXUENA** EZ DA BETI **OINARRI-NOTA**!

BIGARRENIK, **ZENBAKIEK** BAXUAREN GAINEAN JARRI BEHARREKO **BITARTEAK** ADIERAZTEN DITUZTE, ZENBAKI BATZUK IDAZTEN EZ DIREN ARREN.

BITARTEAK BETI DIRA **DIATONIKOAK**. ETA EZ KEZKATU GEHIEGI ALTERAZIOENGATIK... ERABILI **ARMADUKO** NOTAK!



ZENBAKIRIK EZ BADAGO, GEHITU **HIRUDUN** ETA **BOSTUN** BAT BAXUAREN GAINEAN... **OINARRIZKO** ANTOLAERAN DAGOEN TRIADA BAT LORTUKO DUZU!



SEI BAKAR BAT BAKARRIK BADAGO, GEHITU **SEIDUN** ETA **HIRUDUN** BAT BAXUAREN GAINEAN ETA **AKORDE SEIDUNA** EDO **LEHEN INBERTSIOA** LORTUKO DUZU!



SEI ETA LAU BAT BADAGO, GEHITU **SEIDUN** ETA **LAUDUN** BAT BAXUAREN GAINEAN ETA **AKORDE SEI-LAUDUNA** EDO **BIGARREN INBERTSIOA** LORTUKO DUZU!



HEMEN **SOSTENITUA** SEIAREN ONDOAN DAGO, BERAZ, **SOL** SOSTENITUA IZANGO DA.



HONETAN **EZ DAGO** ZENBAKIRIK **SOSTENITUAREN** ONDOAN, BERAZ, BAXUTIK HASITA **HIRUDUNARI** JARRIKO DIOGU.



ETA BESTE HONETAN **BEKOADRO** BAT AZALTZEN DA SEIAREN ONDOAN, EZ **BEMOL** BAT... BEMOLA AGERTUKO BALITZ **DO BEMOL** JOKO GENUKE.

AZKENIK, ADIERAZITAKO **ALTERAZIOETARAKO** BEGIRATU ZEIN ZENBAKIREN ONDOAN AZALTZEN DIREN. **BERA** BAKARRIK BADAGO, BAXUTIK HASITA **HIRUDUNARI** APLIKATZEN ZAIO.

BAINA EZ EMAN BUELTA GEHIEGI HONI: KONPOSITOREAK **NOTA** BAT **TONUERDI** ALTHAGO NAHI BADU ETA **ARMADURAN** **BEMOL** BEZALA IDATZIRIK BADAGO, BAXU ZIFRATUAN **BEKOADROA** ADIERAZIKO ZEN, EZ **SOSTENITUA**.

GARAI KLASIKOAK AUERRERA EGITEN ZUEN EINEAN KONPOSITOREEK **GERO** ETA **GUTXIAGO** ERABILTZEN ZUTEN BAXU JARRAITUA, HORI DELA ETA BAXU ZIFRATUAREKIN BERDINA GERTATU ZEN... SALBUESPEN BATEKIN: **MUSIKAREN** **TEORIAKO** **KLASEAK**!

BAXU ZIFRATUA **GAUZATZEA** (BAXU JARRAITUAN OINARRITUTA AKORDEAK ERAIKITZEA) **ARIKETA** EZINHOBEEA DA **GARAI** KLASIKOAN BEZALA KONPOSATZEN **IKASTEA** NAHI DUTEN IKASLEENTZAK!

OOOH!


Triadak Tonalitatean

BEHIN **TRIADEN** INGURUAN ZERBAIT GEHIAGO JAKINDA, HELDU DA **TONU** BATEAN ERABILTZEKO GARAIA.

TONU JAKIN BAT ERABILTZEAK **BERE ARMADURAKO** NOTAK ERABILTZEA ESAN NAHI DUENEZ, ONDORIOZTA DEZAKEGU **AKORDE** GEHIENAK NOTA HORIEKIN ERAIKIKO DIRELA!

ARMADURAKO NOTAK ERRESPESTATZEN DITUZTEN AKORDEAK **DIATONIKO** BEZALA EZAGUTZEN DIRA. DIATONIKOK "... **TONUKOA**" ESAN NAHI DU, HAU DA, **BEHIN-BEHINEKO ALTERAZIORIK GABE!**

TONU BATEKO **TRIADA DIATONIKO** GUZTIAK OSO MODU ERRAZEAN ERAKUTSI DAITEZKE **ESKALA** ARRUNT BAT IDATZIZ TONU HORRETAN ETA **NOTA BAKOITZAREN** GAINEAN **TRIADAK** ERAIKIZ.



I ii iii IV V vi vii°

AKORDE DESBERDINAK ADIERAZTEKO **ZENBAKI ERROMATARRAK** ERABILTZEN DIRA.

IKUSTEN DUZU NOLA DESBERDINTZEN DIREN AKORDE MOTAK **MAIUSKULA** EDO **MINUSKULEKIN?**

BATZUETAN **IZEN OFIZIALAK** ERE ERABILTZEN DIRA!

TONIKA

SUPERTONIKA

MEDIANTEA

SUBDOMINANTEA

DOMINANTEA


SUPERDOMINANTEA

SENTSIBLEA

MAIOR, MINOR ETA **GUTXITUEN** PATROI HAU **BERDINA** DA **TONU MAIOR** GUZTIAN! **SUBDOMINANTEAREN** TRIADA BETI DA **MAIORRA**, ETA **SENTSIBLEARENA** BETI **GUTXITUA**, ZAUDEN TONUAN ZAUDELA, **DO MAIOR** EDO **FA SOSTENITU MAIOR!**

BAI **DOMINANTEAREN** TRIADAK ETA BAI **SENTSIBLEARENAK** **TONIKARAKO** JOERA BAT DUTE; HAU EK BIEK "**DOMINANTE FUNTZIOA**" DUTELA ESATEN DUGU. **SUBDOMINANTE** ETA **SUPERTONIKAREN** AKORDEEK, ORDEA, **DOMINANTERAKO** JOERA DUTE ETA "**SUBDOMINANTE FUNTZIOA**" DUTELA ESATEN DUGU.

TONU **MINORREKO** TRIADAK BERDIN ERAIKITZEN DIRA... ETA **AKORDEEKIN** LANEAN GABILTZANEZ, **ESKALA MINOR HARMONIKOA** ERABILIKO DUGU. DENA DEN, GARRANTZITSUA DA KONTUAN IZATEA GARAI KLASIKOKO KONPOSITOREEK NOTA **SENTSIBLEA DOMINANTE FUNTZIOA** ZUTEN AKORDEETAN BAKARRIK IGOTZEN ZUTELA: **DOMINANTEAN** BEREAN ETA **SENTSIBLEAREN TRIADAN!**



i ii° III iv V VI vii°

IZEN ETA **ZENBAKI ERROMATARRAK** BERDINAK BAINA... **MAIUSKULA-MINUSKULA** DESBERDINAK!

Ahots-Joskerarako Sarrera

ATZERA BEGIRADA BAT BOTAZ, **EGIA ITSUSI** BATEKIN EGITEN DUGU TOPO:

MUNDUAREN HISTORIAN ZEHAR
PENA MEREZI DUEN MUSIKA
ASKO ETA ASKO EGIN DA...

HILABETE HAUETAN LANDU
DEZAKEGUNA BAINO
ASKOZ GEHIAGO.

EZINEZKOA DENEZ DEN-DENA LANTZEA, **HIZKUNTZA MUSIKAL ZEHATZ** BAT AUKERATU BEHAR DUGU SAKONTASUNEZ IKASTEKO.

HAS GAITEZEN DENBORA TARTEA **GARAI KLASIKORA** MURRIZTUZ:



GARAI KLASIKOA DERITZOGUNA **BARROKO, KLASIZISMO ETA ERROMANTIZISMO** ALDIETAKO MUSIKAK OSATZEN DU; BAI **EUROPAN**, BAI **AMERIKAN**. KALEKO HIZKUNTZAN MUSIKA KLASIKOA HIRU ALDI HAUETAKO EDOZEIN KONPOSIZIO DESKRIBATZEKO ERABILTZEN DEN ARREN ZUZENAGOA LITZATEKE KLASIZISMOKO MUSIKA BAKARRIK DESKRIBATZEKO ERABILTZEA.

ENTZUN DITZAKEZUN KONTZERTUETAN JOTZEN DIREN KONPOSIZIO GEHIENAK GARAI HONETAKOAK DIRA, MEREZI DU ZERBAIT IKASTEA...

BAINA, NAHIZ ETA HISTORIAKO DENBORA PARTE BATERA MUGATU... MUSIKA ASKO IZATEN JARRAITZEN DU. BADAGO HASTEKO ERABILI DEZAKEGUN **ESTILO ESANGURATZUEN** BAT?

... GAINERA, GAUR EGUNGO MUSIKA-ESTILO **EZAGUNEN** OINARRI DA.

LAU AHOTSEKO KORALAK INTERESGARRIA EGITEN DUTEN **HAINBAT ARRAZOI** DITU:

KORALEK **ERRITMO HARMONIKO** BIZKORRA DUTE; AKORDE PILA DENBORA GUTXIAN.

GARAI KLASIKO OSOKO MUSIKA PORTZENTAI HANDI BAT **LAU AHOTSEKO KONTRAPHUNTURA** SINPLIFIKATU DAITEKE.

J.S. BACH-EN KANTATA ASKO DITUGU, LAU AHOTSETARA ETA MODU KOHERENTEAN IDATZITAKO KONPOSIZIOAK.

MARTIN LUTHER-EK ELIZA KATOLIKOARI PROPOSATUTAKO ALDAKETETAKO BAT **ELIZTARREN** PARTEHARTZEA, **ELIZ KANTUAK ABESTUZ**, BAIMENTZEA IZAN ZEN.

NOSKI, HORREN ONDORIOA LUTHER **HEREJETZAT JOTZEA** IZAN ZEN. HORI DELA ETA BERE **ELIZA PROPIOA** SORTH ZUEN, BERE IDEIAK APLIKATU AHAL IZATEKO.

BERREHUN URTE GEROAGO, **J. S. BACH LEIPZIG- EKO (ALEMANIA) SANTO TOMAS** ELIZAKO MUSIKA ZUZENDARI HAUTATU ZUTEN ETA LUTHER-REN IDEIAK JARRAITUZ **BOST URTE OSOZ** JO DAITEZKEEN **KANTU LITURGIAKOAK** IDATZI ZITHEN.

LAN HAUETAKO BAKOITZA, **KANTATA** BEZALA EZAGUTZEN DENA, **HIMNO BATEN MELODIA** HARTU ETA **LAU AHOTSETARA** HARMONIZATUZ EGINDA DAGO.

BACH-EN KANTATAK AZTERTUZ, LAU AHOTSETARA KONPOSATZEKO **"ARAU" MULTZO** BAT LORTU DEZAKEGU, SAKONTASUNEZ IKASI AHAL IZATEKO.



Ahots-Joskera: Arau Bertikalak

GARAI KLASIKOAN MUSIKA NOLA KONPOSATZEN ZUTEN HOBETO ULERTZEKO GUK GEUK KONPOSATUKO DUGU MUSIKA, BERAIEEN ESTILOA ERABILIZ.

BERAIEN MUSIKAN IKUSTEN DITUGUN PATROIAK, **EGITEN** ZITUZTEN GAUZAK EDO **EGITEN EZ** ZITUZTENAK, "**ARAUAK**" BIHURTUKO DIRA GURETZAT.

GARAI HORRETAKO KONPOSITOREEK **EZ** ZITUZTEN "ARAU" BEZALA IKUSTEN... BERAIENTZAT **GUSTOKO SOINUA** ZUELAKO IDAZTEN ZUTEN HORRELA.

HORRETAZ GAIN, EZ GENITUZKE ERABILI BEHAR ARAU HAIEK MUSIKA **OROKORREAN** KONPOSATZEKO... ESTILO BAKOITZAK BERE PATROI **PROPIOAK** DITU; BERE "**GIDALIBURU**" PROPIOA. KONPOSITORE BEZALA, **ZEURE ARAUAK** IZAN BEHARKO ZENITUZKE **ZEURE ESTILOA** ERAIKITZEKO!

ARAU BERTIKALEKIN HASIKO GARA... HAU DA, **LAU AHOTSEKO HARMONIAN AKORDE** BAKAR BAT ERAIKITZEA AHALBIDETZEN DUTENAK.


LEHENIK ETA BEHIN, **SOPRANOTIK ALTURAKO** DISTANTZIA, ETA **ALTUTIK TENORRERAKOA** ZORTZIDUN BAT EDO **GUTXIAGOKOA** IZAN BEHAR DA.

TENORRA ETA BAXUA **NAHI BESTE HURRUNDU** DAITEZKE!

BIGARRENIK, AHOTSEK **ORDENA MANTENDU** BEHAR DUTE; ADIBIDEZ **TENORRA** EZ LITZATEKE **ALTUA** BAINO **GORAGO** EGON BEHARKO. (BACH-EK NOIZBEHINKA ARAU HAU APURTZEN ZUEN, **MELODIA BEREZIE** BAT **LORTU** NAHI ZUENEAN EDO.)

HIRUGARRENIK, **TRIADA HIRU NOTAZ** OSATURIK DAGOENEZ BAINA GUT **LAU AHOTS** DITUGUNEZ, NOTETARIKO BAT **BIKOIZTU** EGIN BEHAR DA. **OINARRIZKO ANTOLAERAN** DAUDEN TRIADETAN **OINARRI-NOTA** DA BIKOIZTEN DENA, GAINONTZEKO ARAUEK BESTELAKOA EGITERA BEHARTU EZIK.

AZKENIK, AHOTS BAKOITZAK BERE **HEDADURA** DU. **GAUR EGUNGO ABESLARIENTZAT** NAHIKO HEDADURA **KONTSERBADOREAK** DIRA, BAINA KONTUAN IZAN BACH-EN KORALAK **LEIPZIG-EKO ELIZARA** ZIOAN **JENDE ARRUNTARENTZAT** IDATZI ZIRELA!



Ahots-Joskera: Arau Horizontalak




AHOTS-JOSKERAREN **HELBURU NAGUSIA** AHOTSEN ANTOLAERA ON BAT LORTZEA DA... AHOTS BAKOITZA **ABESTEKO ERRAZA** EGINEZ, **BITARTE ARRARO** EDO **JAUZI HANDIAK** EKIDINEZ!

BAIMENDUTA EDO **DEBEKATUTA** DAGOENAREKIN HASI BAINO LEHEN KOMENTATU DITZAGUN LAU AHOTSETARA IDAZTERAKOAN **GARRANTZITSUAK DIREN HAINBAT EZAGARRI:**

AHOTS BAKOITZA **AHALIK ETA GUTXIEN** MUGITZEN DA, AKORDE BATETIK HURRENGORA ALDATZERAKOAN **HURBILEN DAGOEN NOTARA** JOANEZ!

KASU BATZUETAN BALITEKE AUKERARIK ONENA **NOTA BERDINEAN** GERATZEA IZATEA. **AMANKOMUNEAN** DUTEN **NOTA ERABILTZEA BETI DAGO ONDO!**



OHIKOA DA BAXUA **GOIKO HIRU AHOTSEN AURKAKO NORANTZAN** MUGITZEA. HAU, **KONTRAKO MUGIMENDU** BEZALA EZAGUTZEN DA ETA **AHOTSEN INDEPENDENTZIA** MANTENTZEN LAGUNTZEN DU.

ERA BEREAN, BAXUAK AKORDE BAKOITZAREN **HARMONIAREN OINARRI** BEZALA FUNTZIONATZEN DUENEZ, GAINONTZEKO AHOTSEK BAINO **JAUZI HANDIAGOAK** IZAN OHI DITU.

AHOTSEN INDEPENDENTZIA?

LAU AHOTSEKO HARMONIA **KONTRAPUNTU** MODU BAT DA. KONTRAPUNTUAN ALDI BEREAN **MELODIA BAT BAINO GEHIAGO** JOTZEN DIRA, AHOTS BAKOITZAK **GARRANTZI BERDINA** IZANEZ, BATEK ERE EZ DU LAGUNTZAILE BEZALA AKTUATZEN.

KONTRAPUNTUAN GARRANTZI HANDIA DAUKA AHOTS BAKOITZA **INDEPENDENTEA** IZATEAK; HAU DA, AHOTS BIK EZ LUKETE **BERDINA** EGIN BEHARKO. AHOTS BI (EDO GEHIGO) **PARALELOAN** MUGITUKO BALIRA KONPOSIZIOAK **ABERASTASUNA GALDUKO LUKE.**

GARAI KLASIKOKO KONPOSITOREAK **OSO KOHERENTEAK** ZIREN ETA, ONDORIOZ, **ZORTZIDUN, BOSTUN** ETA **UNISONO PARALELOAK** EDOZEIN PREZIOZTAN EKIDITEN ZITUZTEN!



ZORTZIDUN PARALELOAK! **BOSTUN PARALELOAK!** **UNISONO PARALELOAK!**

ESTILO HONETAN KONPOSATZEKO **BESTE ARAU GUTXI** BATZUK ERE BADAUDE:

NOTA SENTSIBLEA KANPOKALDEKO AHOTSEN BATEN (SOPRANOAN EDO BAXUAN) AZALTZEN BADA, HURRENGO AKORDEAN **TONIKAN** EBATZI BEHAR DU.

BIDUN GEHITUKO ETA **LAUDUN GEHITUKO** BITARTEAK DEBEKATUTA DAUDE **EDOZEIN** AHOTS MUGITZERAKOAN.

BAINA **ALBISTE ONAK** ERE BADITUZU: **AHAL DUZUN GUTXITAN** ONDRENGOA EGINEZ PARALELOAK EKIDINGO DITUZU:

1. **NOTA AMANKOMUNA MANTENDU!**
2. **AKORDEKO NOTARIK HURBILENERA JOAN!**
3. **KONTRAKTO MUGIMENDUA ERABILI!**

Ahots-Joskera: Inbertsioak Erabiltzen



GARAI KLASIKOKO KONPOSITOREEK LAU AHOTSETARA IDAZTEAN ETA **AKORDEEN INBERTSIOAK** ERABILTZEAN **BIKOIZTU** BEHARREKO NOTA ZEIN IZAN BEHAR ZEN JAKITEKO **OHITURAN OINARRITUTAKO ARAUAK** ZITUZTEN.

OINARRIZKO ANTOLAERA

OINARRIZKO ANTOLAERAN ZEUDEN TRIADETAN OINARRI-NOTA **BIKOIZTU** OHI ZUTEN; AKORDEKO **BAXUA.**



LEHEN INBERTSIOA

LEHEN INBERTSIOKO TRIADETAN AKORDEAREN IZAERAREN INGURUKO INFORMAZIOA GEHIAGO BEHAR DA.

LEHEN INBERTSIOKO TRIADA **MAIORRA** BADA,

SOPRANO

BIKOIZTU OHI ZUTEN.



LEHEN INBERTSIOKO TRIADA **MINORRA** BADA,

BAXUA

EDO SOPRANO

BIKOIZTU OHI ZUTEN.



LEHEN INBERTSIOKO TRIADA **GUTXITUA** BADA,

BAXUA

BIKOIZTU OHI ZUTEN.



BIGARREN INBERTSIOA

BIGARREN INBERTSIOKO TRIADETAN BOSTUNA **BIKOIZTU** OHI ZUTEN, AKORDEKO

BAXUA.



HONA HEMEN PENTSATZEKO **BESTE** MODU BAT: **BAXUA** BIKOIZTU EZIN DAITEZKEEN BAKARRAK **LEHEN INBERTSIOAN DAUDEN TRIADA MAIORRAK** DIRA; BERE ORDEZ, **SOPRANO** BIKOIZTU BEHAR DELARIK.

EDERTO, BADAIZKIGU **NOLA** ERABILI INBERTSIOAK... BAINA **NOIZ** ERABILI DITZAKEGU?

OINARRIZKO ANTOLAERA ETA **LEHEN INBERTSIOA** NOIZ ERABILI ESATEN DUEN "ARAU" BAKARRA **TRIADA GUTXITUEKIN** AURKITZEN DUGU. BETI JARRI BEHAR DIRA **LEHEN INBERTSIOAN.**

HORTIK APARTE, **ZUK NAHI DUZUNEAN** ERABILI DITZAKEGU OINARRIZKO ANTOLAERA ETA **LEHEN INBERTSIOA!**

BIGARREN INBERTSIOA DA **DEBEKU** LGARI DITHENA.

6/4 KADENTZIALA BIGARREN INBERTSIOAN DAGOEN TONIKA BAT DA, OINARRIZKO ANTOLAERAN DAGOEN **DOMINANTEAREN** AKORDE BATEK JARRAITUZ KADENTZIA BATEAN.



F: I⁶₄ V I



F: I⁶ V⁶₄ I

PASADIZOKO AKORDEA BIGARREN INBERTSIOAN DAGOEN AKORDE BAT DA, NON **BAXUA PASADIZOKO NOTA** BEZALA ERABILTZEN DEN **GORANTZA** EDO **BEHERANTZA** DOAN PAUSUZ-PAUSUKO MELODIA BATEN BARRUAN.

6/4 PEDAL-AKORDEA BIGARREN INBERTSIOAN DAGOEN AKORDEA DA, NON **BAXUA PEDAL-NOTA** BEZALA ERABILTZEN DEN: PASARTE BATEAN **MANTENTZEN DEN BEHE-NOTA.**



F: I IV⁶₄ I

AURREKO HIRU EGOEREN BARRUAN AURKITZEN EZ DEN **BIGARREN INBERTSIOKO TRIADA** BAT IDAZTEN BADUZU, ORDUAN, **EZ ZARA GARAI KLASIKOKO ESTILOA** MANTENTZEN ARI! KONPOSITORE KLASIKOEK EZ ZITUZTEN AKORDE HAUEK **AUSAZ** ERABILTZEN.

Ahots-Joskera: Minor Melodikoa

GARAI KLASIKOAN,
KONPOSITOREEK
MINOR HARMONIKOA
ERABILTZEN ZUTEN
OROKORREAN. BAINA
BIDUN GEHITUAK
AZALTZEN ZIRENEAN
LAGUNTZA BILATZEN
ZUTEN **HEROI** BATEAN:
MINOR MELODIKOA!

ESATEN NENBILEN
BEZALA, TONIKARA
BHULTAN TRANSPOSATU
GENHEN BEZAIN
PRONTO, **BERRIZ**
MODULATZEN
HASI ZEN ETA...

ADI! ADI! LAGUNTZA BEHAR
DUGU LARRIALDIETARAKO
3B GELAN **PAZIENTE**
BERRI BATEKIN!



ZEIN DA
ARAZOA, JAUNA?

BA... **MINORRERA** TRANSPOSATZEA
PENTSATU NUEN, FAMILIARI EZUSTEKO
BAT EMATEKO... BERAZ, **NOTA**
SENTSIBLEAK IGO NITHEN GARAI
KLASIKOKO PROGREZIO BAT BAINAIZ...



AJA, ETA ZEIN DA ARAZOA?

BIDUN
GEHITUAK IRTEN
ZAIZKIT!

AHHH!

MEGAFONIATIK... MINOR MELODIKO MEDIKUA!

ZER
EGIN DEZAKEGU,
MEDIKU JAUNA?

GORANZKO BIDUN GEHITU HONENTZAT **ESKALAKO**
SEIGARRREN GRADUA IGotzEA ERREZETATZEN DUT!

OHHH... **IV AKORDE MAIOR** BAT SORTZEN DUT!

IV⁶

ETA HORREK
V AKORDE
MINORRA
SORTZEN DU!

ETA **BEHERANZKO**
BIDUN GEHITU HONENTZAT,
ZAZPIGARRENA
IGO GABE
MANTENDUKO DUGU!

NIRE BIDUN
GEHITUAK JOAN
DIRA...
SENDATURIK
NAGO!

HAI **EGHNEROKO**
OGIA DA. ORAIN
FAKTURAREN GAIA
BAKARRIK GERATZEN DA.

SENDA ITZAZU ORAIN **ZURE** BIDUN GEHITUAK **MINOR MELODIKOAREKIN!**

Kadentzia Harmonikoak



KADENTZIA BAT MUSIKA LAN, ZATI EDO FRASE BATEN AZKEN AKORDE BIAK DELA ESAN DEZAKEGU. GUZTIRA LAU KADENTZI MOTA DAUDE, BAKOITZAK BERE EZAUGARRI ETA ALDAKUNTZA PROPIOAK DITHELARIK.

KADENTZIA AUTENTIKOA AKORDE **DOMINANTE** BATEK (V EDO VII) ETA **TONIKAK** OSATZEN DUTE.

KADENTZIA AUTENTIKO PERFEKTUA DELA ESAN AHAL IZATEKO, HURRENGO IRIZPIDEAK BETE BEHAR DITU:

V AKORDEA ERABILI BEHAR DU (EZ VII)

AKORDE BIAK **OINARRIZKO** ANTOLAERAN EGON BEHAR DIRA

SOPRANOAREN AHOTSAK **TONIKAN EBATZI** BEHAR DU

SOPRANOA **HURBILEKO** NOTA BATERA MUGITU BEHAR DA



SOL: V I

AURREKO IRIZPIDE **GUZTIAK** BETETZEN EZ BADITU, ORDUAN, **KADENTZIA AUTENTIKO INPERFEKTU** BATEN AURREAN GAUDE!



SOL: vii°6 I



SOL: V6 I

KADENTZIA PLAGALA SUBDOMINANTE AKORDEAZ (IV EDO II) ETA **TONIKA** AKORDEAZ OSATUTAKOA DA.

KADENTZIA HONEN BARRUAN **PLAGAL PERFEKTUA** NABARMENDU DAITEKE, HORRETARAKO IRIZPIDE **GUZTI** HAU EK BETE BEHAR DITHELARIK:

IV AKORDEA ERABILI BEHAR DU (EZ II)

AKORDE BIAK **OINARRIZKO** ANTOLAERAN EGON BEHAR DIRA

SOPRANOAREN AHOTSAK **TONIKAN EBATZI** BEHAR DU

SOPRANOAK **NOTA** AMANKOMUNA MANTENDU BEHAR DU



SOL: IV I

ETA IRIZPIDE **GUZTI** HAU EK BETETZEN EZ BADITU, ORDUAN, **KADENTZIA PLAGAL INPERFEKTU** BATEN AURREAN GAUDE!



SOL: IV6 I



SOL: ii I6

ERDIKADENTZIA SAILKAPENA **DOMINANTE** AKORDE BATEN (V) BUKATZEN DEN **EDOZEINETARAKO** ERABILTZEN DA.



SOL: I V

MOTA HONETAKO **KADENTZIA** BEREZI BAT **KADENTZIA FRIGIARRA** DA:

MINORREAN BAKARRIK AURKITZEN DA

V AKORDEA JOATEKO IV-A ERABILTZEN DU

SOPRANOA ETA BAXUA **KONTRAKO** MUGIMENDUAN JOAN BEHAR DIRA **NOTA HURBILENERA**

BAI SOPRANOAK ETA BAI BAXUAK **ESKALAKO BOSGARREN GRADUAN** EBATZI BEHAR DUTE



mi: iv6 V



mi: iv V

KADENTZIA ETEN BATEAN **DOMINANTEAK** (V) **TONIKA** EZ BESTE ZERBAITEN EBAZTEN DU... GEHIENETAN **SUPERDOMINANTEAN** (VI).



SOL: V vi

EGIA ESAN, **DESOREKAREN KADENTZIA** DA; **TONIKAN** EBAZTEA **ESPERO** DUZU BAINA... **EZ DU EGITEN!**



HORI DELA ETA, OHIKOAGOA DA ESALDIAREN **ERDIAN** AURKITZEA AMAIERAN BAINO... **KADENTZIAN OINARRITUTAKO EGITURA** SORTUZ.

Progresio Harmonikoa

GARAI KLASIKOKO KONPOSITOREEK
NOLA AUKERATZEN ZUTEN **AKORDEEN**
ORDENA? **NOLANAHI** JARTZEN ZITUZTEN?



EGIA ESAN, BADAUDE **SARRIAGO** AZALTZEN DIREN PROGRESIO BATZUK ETA, BESTALDE,
AHAL DEN NEURRIAN EKIDITEN DIRENAK. KONPOSITOREEK AUKEKAKETA EGITERAKOAN
GUSTOKO SOINUA BAZUEN EDO EZ IKUSTEN ZUTEN ARREN TEORIALARIEK **PATROI** BATZUK
AURKITU AHAL IZAN DITUZTE, **FUNTZIONATZEN DUENA** ETA **EZ DUENA** SAILKATUZ.

PATROI HAUEK BILATU ETA AZTERTZEKO **OINARRI-NOTEN MUGIMENDUA** IZAN GENEZAKE KONTUAN.
AKORDE BATEKO ETA HURRENGOAREN OINARRI-NOTEN BITARTEA KONTUAN IZANDA, **MOTARIK GABE**;
BITARTEAREN **TAMAINA** ETA **NORABIDEA** BAKARRIK.

ADIBIDE HONETAN **OINARRI-NOTEN** MUGIMENDUA
AZTERTZEN DUGU (EZ **BAXUARENA!**) ETA **BITARTEA**
ARGITU.



LA-TIK SI-RA ZAZPIDUN BAT DAGO
BEHERANTZ, ETA ALDERANTZIKATUZ
BIDUN BAT IZANGO ZEN GORANTZ.

HORI KONTUAN IZANDA, HONA HEMEN PATROIA:
GARAI KLASIKOAN OHIKOAK ZIREN **GORANZKO**
BIDUN MUGIMENDUAK, **BEHERANZKO HIRUDUNAK**
ETA **BEHERANZKO BOSTUNAK!**



EZ DU ESAN NAHI EZ ZUTELA
INOIZ BESTELAKO MUGIMENDURIK
ERABILTZEN, BAINA EZ ZIREN
HORREN OHIKOAK.

GOGORATU...

BITARTEAREN **MOTAK**
AXOLA EZ DUENEZ EZ IZAN
KONTUAN **ALTERAZIOAK**.



IZAN ERE, AKORDE SEKUENTZIA HORIEK
ITSUSIAGOAK KONTSIDERATZEN ZIREN.

ADIBIDEZ, **SOL-EN AKORDETIK**
MI-RENERA HIRUDUN BAT JAIZTEN DA;
BAITA **SOL-ETIK MI BEMOLERA** EDOTA
SOL SOSTENITUTIK MI BEMOLERA!



"ITSUSIAGOA"
ONDORENGOA ESATEKO
MODU ELEGANTE BAT DA:
"KONPOSITOREEK EZ
ZUTEN EGITEN, BERAZ,
ZUK ERE EZ ZENUKE
EGIN BEHARKO!"



ETA NOSKI, PATROI HONEK BERE SALBUESPENAK DITU. LAU:



EDOZEIN AKORDETIK
JOAN GAITEZKE TONIKARA,



TONIKATIK EDOZEIN
AKORDERA JOAN GAITEZKE,



EDOZEIN AKORDETIK JOAN
GAITEZKE DOMINANTERA,




ETA SENTSIBLEAREN AKORDETIK
TONIKARA JOAN BEHAR GARA.



C: ii

JAR DEZAGUN
IKASITAKOA
MARTXAN...
DEMAGUN
SUPERTONIKAREN
AKORDETIK ABIATU
BEHAR GARELA ETA
HURRENGOA ZEIN
DEN ERABAKI.

ONDO EGONGO LITZAKE
BIDUN BAT IGOTZEA
MEDIANTERA...



iii

EDO HIRUDUN
BAT JAIZTEA
SENTSIBLERA...



vii^{o6}

EDO, BAITA, **BOSTUN BAT**
JAITZI DOMINANTERA
HELTZEKO...



V

AZKENIK, SALBUEZPEN
ERE ERABIL ZENEZAKE
ETA **TONIKARA** JOAN!



I

Modulazio Diatonikoa Akorde Perfektuekin

MODULAZIOA KONPOSIZIO BATEN BARNEAN TONALITATE BATETIK BESTERA IGAROTZEKO PROZESUA DA.

HAINBAT MODU DESBERDIN ERABILTZEN DIRA MODULATZEKO. SEGURUENIK SINPLEENA **PRESTATU GABEKO MODULAZIOA** IZANGO LITZATEKE; BAT-BATEAN GERTATZEN DA, ASKOTAN **TONU-ERDIA** IGOAZ.


EHHH... ZER EGITEN DU ARGAZKI HONEK HEMEN?






GARAI KLASIKOKO KONPOSITOREEK, ORDEA, NAHIAGO ZUTEN PRESTAKUNTZA GEHIAGO EXIGITZEN DUEN MODULAZIO MOTA BAT: **MODULAZIO DIATONIKOA**. IZENAK ESATEN DUENEZ, BAI **TONALITATE ZAHARREAN** ETA BAI **BERRIAN DIATONIKOA** DEN AKORDE BAT ERABILTZEAN DATZA.

DEMAGUN **DO MAIOR** TONALITATEAN GAUDELA... HEMEN DITUZU DO MAIORREKIN AKORDEAK **AMANKOMUNEAN** (NABARMENDURIK) DITUZTEN BESTE TONALITATE GUZTIAK:


ADIBIDEZ, **SOL MAIORREKO I. AKORDEA** (SOL, SI, RE)...







...**DO MAIORREKO V.A DA!**



AKORDEREN BAT AMANKOMUNEAN DUTEN **TONALITATEAK** ERLAZIONATUTA DAUDE.



TONALITATE HAEK ALKARREN ONDOAN DAUDE **BOSTUNEN ZIRKULUAN**.



MODULAZIO MOTA HAU ARRAKASTAZ ERABILTZEKO KONPOSITOREAK AKORDE BEREZI HAU ERABILIKO LUKE **PIBOTE** BEZALA TONALITATE BIEN TARTEAN JARRIZ. **TEORIALARIOK AKORDE PIBOTE** HAU **TONALITATE BIEN** PARTE BEZALA IKUSTEN DUGU.



AKORDE PIBOTE HAU **BETI** IZANGO LITZATEKE **TONALITATE ZAHARREKO AZKEN AKORDEA...** ALTERAZIO BERRIAK **ONDORONGO AKORDEETAN** AGERTUKO LIRATEKE!

Motibo Garapena

ATSEDENA HARTUKO DUGU
OHIKO GAJETATIK ETA... EH,
LUDWIG VAN BEETHOVEN DA?

ZER MODUZ DOA DENA, **MAESTRO?**



EZ ONDO:
20 TXANPONEKO
APUSTU BAT EGIN DUT
RUDOLPH ARTXIDUKEAREKIN
ASTE HONETAN
500 KONPAS IDATZIKO
NITUELA ETA MOMENTUZ
LAU NOTA ZIZTRIN
BAKARRIK DITUT!

**JATORRIZKO
MOTIBOA**



LASAI, B. JAUNA... NOTA
HORIEK **MOTIBO** BEZALA
ERABILIKO DITUGU ETA BERTATIK
ABIATUTA MUSIKA **GEHIAGO**
SORTUKO DUGU. BEGIRA!

ERREPIKAPENA

MOTIBO BAT GARATZEKO
MODURIK SINPLEENA:
ERREPIKATUZ MUSIKA
BIKOITZA LORTZEN DA!



SEKUENTZIA

MOTIBOA ERREPIKATU BAINA
ALTUAGO EDO BAXUAGO. GAINONTZEKO
GUZTIAN BEZALA, BITARTEAK EZ DUTE
ZERTAN BERDIN-BERDINAK IZAN BEHAR.



INBERTSIOA

MOTIBOARI BUELTA EMAN:
JATORRIZKOA BEHERANTZ BADOA,
BUELTA EMANEZ, GORANTZ
GERATUKO LITZATEKE.



**BITARTEA TXIKITU
BITARTEA HANDITU**

IZENAK DIOEN BEZALA,
MOTIBOKO BITARTEAK TXIKITU
EDO HANDITZEAN DATZA.



**TXIKITZEA
HANDITZEA**

MOTIBOAREN ABIADURA ALDATZEA
ARINAGO (TXIKITZEA) EDO ASTIROAGO
(HANDITZEA) JOTZEKO.



**METAMORFOSI
ERRITMIKOA**

MOTIBOAREN EDOZEIN ERRITMO
ALDAKETA (TEMPOA ALDATZEAZ
BESTALDE, GOIAN AZALDU BEZALA)



IMITAZIOA

"OHIARTZUNA" BAILITZ, AHOTS DESBERDINEKIN
LORTUTAKO EFEKTUA (INSTRUMENTU DESBERDINAK EDO
ALTUERA DESBERDINA ERABILIZ PIANOAN)



JE JE... **253 KONPAS**
LORTU DITUGU...

ITXARON... **4/4-KO
KONPASEAN**
GAUDE, EZ?

UH, YEAH...

BA ERABILI DEZAGUN
2/4 BERE ORDEZ!

TXAKUR ZAHARRA ZARA
GERO... **506 KONPAS!**

ALAAA!
HARTZAZU,
RUDY!

BAINA NOLA...
EGIN DEZAGUN
**BIKOITZA EDO
EZER EZ!**

